

la admirable terna de estos treinta años. Los tres, cada uno segun su carácter peculiar y segun sus aptitudes físicas, han demostrado una habilidad extraordinaria y una inteligencia superior, acompañada de aquella serenidad de espíritu que permite á los hombres ser dueños de sí mismos, y que distingue á los que sobresalen lo mismo en los ramos de la inteligencia, como en todos los juegos de destreza y habilidad.

---

## SAN IGNAZIO ETA BERE SEMEAI

1885-GARREN URTEAN UZTAILLAREN 31-AN.

---

Mundu guziyan omenaturik  
 Dagoen izen ederra  
 Da, gure Aita San Ignazio  
 Azpeitiaren izarra;  
 Gaztañ artean jayo ziñaden  
 Seme gudari azkarra,  
 Fede santuba berotutzeko  
 Pare gabeko sugarra.

Soldadutzatik igo ziñaden  
 Animak salbatutzera,  
 Lagundi ona, fundatu eta  
 Santuen bizitzetara;  
 Geroz zeruban eta munduban  
 Bizirik arkitzen zera,  
 Beragatikan jendeak datoz  
 Beti zu adoratzera.

Zuk utzitako liburu danak  
 Beti dirade aundiyak,  
 Letra bakar bat mudatu gabe  
 Daude chit garbi garbiyak;  
 Ez gaur lege bat, bigar bestea,  
 Darabilkiten piñiyak,  
 Fede batean, ichitzen dira  
 Zure semeen begiyak.

Egon naitzaye birtute asko  
 Dituztenai begira,  
 Ondoren onak utzi dituzten  
 Aita aundiyak badira;  
 San Ignazio bezelakoak  
 ¿Noiz ta nun arkitzen dira?  
 ¿Nork, eta zeñek eraman ditu  
 Ainbeste seme glorira?

Etsai gogorrek izanagatik  
 San Ignaziok beretzat,  
 Danak garaitu izan zituben  
 Itzutzen etzan biyotzak;  
 Izandu ziran, eta badira  
 Seme koitadu oyentzat,  
 Bañan alferrik: zeruko aita  
 Daukate beren laguntzat.

¿Ezaldakigu zertan fundatu  
 Oi diran etsai gaiztoak?  
 Diradelako chit jakintsuak  
 Biralakoan prestuak;  
 Fedearen gatik illtzen diraden  
 Seme koitadu justuak,  
 Arbol garbiyan jayotzen dira  
 Orrelakošen ostoak.

¿Zer erakusten digute guri  
 Ezbaldinbada fedea?  
 Ezbaldinbada argitasuna  
 Eta zerura bidea?  
 Illtzen gaituben ezpata ori  
 ¿Oteda bada ohea?  
 Libertadea oju egiñ ta  
 Lotzea jende librea?

Aztu dirade gizaldi asko,  
 Etorri bitez besteak,  
 Ill ditezela ondorengoak,  
 Sortuko dira gazteak;  
 Irichi arte Josafatera  
 Jayotzen geran jendeak  
 Beti biziko dira munduban  
 Ignazioren semeak.

Dakigu nola eta zergatik  
 ¡Ai! zure eche santuba  
 Egonduba dan urte askoan  
 Gaitz batek minberatuba;  
 Noizbait bear ta, irichi zayo  
 Sendatutzeko orduba,  
 Edertasunez makurtu dezan  
 Etsai gaiztoen buruba.

Erregu on bat egiñ deyogun  
 Ignaziori gogotik,  
 Azpeitiar ta Euskaldun danak  
 Euskeraz geron abotik;  
 Bedeinka ditzan iberotarrak,  
 Egunen batez zerutik,  
 Libra ditezen mendi ederrak  
 Etsai gaiztoen mendetik.

RAMOS AZCARATE.

